

Innobasque Berrikuntza Txostena 2018

Laburpen exekutiboa

**Euskadiko bilakaera
konparatua**



Sarrera

Txosten hau eragileei, bai publikoei bai pribatuei, **gogoeta** egitea eta **erabakiak hartzea** eragiteko **diagnostiko** bat da. Horrela, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistema hobetzeko neurriak martxan jartzea bultzatuko da, ikuspegi partekatu batetik.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema **ebaluatzeko eta monitorizatzeko** Innobasquek duen zereginaren barruan kokatzen da. Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planan **Innobasqueren** esku utzi zuen zeregin hori.

2016ra arteko¹ nazioarteko estatistiketan oinarritutako analisi konparatibo bat da. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren **errealitatearen alderdi askotako ikuspegi bat** eskaintzen du eta Euskadiko I+G+b-aren arloko txosten erreferente bihurtu da.

Txostenak Basque Innovation Perception (BIP) inkestaren **bigarren edizioa** barne hartzen du. **Pertzepzio-inkesta** hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemako kide diren 250etik gora profesionalen talde bati zuzenduta dago. Lan hori 2016an jarri zuen martxan Innobasquek, bertako kide diren erakundeen ekarpenari esker. Analisi kualitatibo bat da, ohiko analisi estatistikoak osatzeko.

(1) 2016. urtekoak dira eskura dauden azken datu estatistikoak.

Aurki- bidea

00 Ondorioak

01 **Euskadi lurralde berritzailea da?**
Euskal I+G+b-ari buruzko analisi konparatiboa

02 **Eta zer iritzi dute adituek?**
Basque Innovation Perception (BIP)

03 **Innobasqueren ibilbidea**

Ondorioak

I+Garen arloko inbertsioa berreskuratzen ari gara, gaur egungo egoera krisiaren aurrekoa bezalakoa ez bada ere.

Enpresek eta administrazio publikoek egindako ahaleginari esker, Euskadi gaur egun **berrikuntza-maila handiko Europako eskualde bat** da.

2008an, BPGaren gaineko I+G gastu-maila **Europakoarekin parekatzea** lortu eta 2009-2012an gainditu ere egin zuen.

2012tik aurrera, **krisiaren eraginaren** ondorioz, Euskadiko BPGaren gaineko I+G gastua EB-28tik urrundu zen: zehazki, % 1,82koa izan zen; Europakoa, berriz, % 2,03koa.

2016an¹, joera-aldaketa bat gertatu zen eta **I+Garen arloko gastua % 1,4 hazi zen** termino absolututan.

Hazkunde hori, BIPeko aditu-taldeak 2018an **hautemandako baikortasuna** eta egoera ekonomiko positiboa ikusita, **I+Gko inbertsio-maila berreskuratzen ari garela** ondoriozta dezakegu.

(1) 2016. urtekoak dira eskura dauden azken datu estatistikoak.

Eszenategi ezberdina. Zer aldatu da?

1 **Sistemaren eraginkortasun altuagoa.** Produktu berrien salmentek eta maila teknologiko altu-ertaineko sektoreetako esportazioek hazten jarraitu dute, inbertsioen bilakaera alde batera utzita.

2 **Enpresa ertainek I+Gan duten protagonismo handiagoa.** Kriaren eraginez, I+Gan inbertitzen duten enpresa handi askoren tamaina txikitu egin da.

3 Hala ere, **ETEEK berrikuntzaren arloan ahulak izaten** jarraitzen dute, EBrekin alderatuta, honako hauetan:

- Antolakuntzarekin eta merkaturatze edo marketinarekin lotutako berrikuntzan.
- Makineria aurreratu, softwareko, patenteetako, eta abarretako inbertsioetan.


4 **Euskadiko enpresen I+G gastuaren eta EB-28koaren arteko arrakala.** 2010etik, enpresetako BPGaren gainerako I+G gastuan aldea handitu egin da.

5 **Nazioarteko I+G publikoaren geldotzea.** Azken hamarkadako H2020ko Europako itzulkinen hazkundea maila gorenera iritsi dela ematen du.

6 **I+Gko langileen kualifikazio altuagoa eta emakume gehiagoren presentzia.** Ikertzaileen ehunekoa handitu egin da, baita doktore-titulua duten pertsonen kopurua ere.


Euskadi lurralde berritzailea da?

Europako Batzordeak Euskadi "berrikuntza-gunetzat" jotzen du oraindik ere, Estatu mailan berrikuntza handiko eskualde bakarra delako, eta Europa hegoaldekoa bakarra.



Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2017.


Euskadik RIS 2017 adierazlean duen kokapena



"Most of the Regional Innovation Leaders are located in countries identified as Innovation Leaders (...). However, regional 'pockets of excellence' can be identified in some Moderate Innovator countries (for instance, Praha (Prague) in the Czech Republic, Bratislavský kraj in Slovakia, and País Vasco (Basque Country) in Spain)."

Gainera, Euskadik kalifikazio horri eutsi dio, beste urte batez, nahiz eta bere inguruko eskualdeek bilakaera negatiboa izan.

Europako eskualdeek RIS adierazlean duten kokapenaren bilakaera




Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2009, 2012, 2014, 2016 eta 2017.

Hezkuntza-maila eta eragin ekonomikoak dira Euskadiren indargune handienak Europako beste eskualdeekin alderatuta; ETEen berrikuntza, berriz, ahultasun nagusia.

Euskadik Europako eskualdeen artean duen kokapena, RIS 2017ren adierazle bakoitzean

Zehazki, marketin edo antolakuntza berrikuntzan, alde batetik, eta makineria aurreratuan, softwarean edo patenteetan inbertitzearekin lotutako berrikuntza jardueretan, bestetik, daude ahultasun nagusiak.



Euskadi ≤ #55

#56 ≤ Euskadi ≤ #110

#111 ≤ Euskadi ≤ #165


#166 ≤ Euskadi ≤ #220

(1) Teknologia-zentroak (TZ) eta ikerketa kooperatiboko zentroak (IKZ) enpresen artean sartzan dira, pribatuak direlako; aldiz, Europako homologoak, normalean, ad-ministrazio publikoen sektorekoak dira.


2008an, Euskadik bere BPGaren gaineko I+G gastua Europakoarekin parekatzea lortu zuen, baina 2012tik aurrera, krisiaren eraginez, EB-28tik urrundu zen: zehazki, % 1,82koa izan zen; Europakoa, berriz, % 2,03koa.

Euskadin finantzazio publikoak EB-28n baino pisu handiagoa izan zuen, eskura dagoen azken datuaren arabera (2015).

BPGaren gaineko I+Gko barne-gastua eta BPGaren urtetik urterako hazkundea, Euskadin eta EB-28n (%-tan; 2005-2016)




I+Gko barne-gastua, funtsen jatorriaren arabera, Euskadin eta EB-28n (%-tan; 2015)




Enpresen kasuan, 2012tik aurrera EB-28rekin alderatuz, BPGaren gaineko I+G gastuan izandako urruntzea nabarmenagoa izan zen.

Enpresetako I+Garen kasuan ere, Euskadiko finantzazio publikoaren pisua EB-28koa baino handiagoa izan zen, eskura dagoen azken datuaren arabera (2015).

Enpresen BPGaren gaineko I+G gastua eta BPGaren urtetik urterako hazkundea, Euskadin¹ eta EB-28n (%-tan; 2005-2016)



Enpresetako I+Ga, funtsen jatorriaren arabera, Euskadin eta EB-28n (%-tan; 2015)




(1) Enpresetako I+G unitateek I+Gan egindako barne-gastua barruan sartzen da. Teknologia-zentroak eta ikerketa kooperatiboko zentroak (IKZ) ez dira barruan sartzen.


Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapeneri buruzko estatistika; Eustat. Kontu ekonomikoak; Eurostat. Statistics on R&D; Eurostat. Annual national accounts.

2016an, joera-aldaketa bat gertatu zen eta I+Garen arloko gastua % 1,4 hazi zen termino absolututan, finantzazio publikoa eta pribatua handitzearen ondorioz.

I+Gko barne-gastua, Euskadin eta EB-28n (kM€-tan; 2005-2016)




Euskadiko I+G gastua, funtsen jatorriaren arabera (M €-tan; 2005-2016)




2016ko gastu-igoera nagusia enpresa ertainetan gertatu zen; enpresa handietako I+G gastuaren beherakada konpentsatuz.

Lehen aldiz, enpresa ertainek handiek baino pisu handiagoa izan zuten.

Enpresetako I+G gastua, enpresaren tamainaren arabera, Euskadin (M €; 2005-2016)



Enpresetako I+G barne-gastuaren banaketa, enpresen tamainaren arabera, Euskadin eta EB-28n (%-tan; 2005-2015)




Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapenari buruzko estatistika; Eurostat. Statistics on R&D.


2016an, Europako programa publikoetako itzulkinak txikitu egin ziren, azken hamar urteetan lehen aldiz, eta horrek nazioarteko finantzazioan joera-aldaketa bat eragin zuen.

Azken hamarkadako Esparru Programetako Europako itzulkinen hazkundera maila gorenera iritsi dela ematen du.

Euskadiko nazioarteko finantzazioaren bilakaera, iturri motaren arabera (M €-tan; 2005-2016)




Euskadin EBko I+Gko Esparru Programek izandako itzulkinak (%-tan; 1990-2016)



Euskadik EB-28rekin alderatuz berrikuntza ahul izaten jarraitzen du; bereziki, antolakuntza eta merkaturatzearekin lotutako berrikuntzan (ez teknologikoa).

Core sektoreetako 10 lanpostuko edo gehiagoko enpresa berritzaileak, berrikuntza motaren arabera, Euskadin eta EB-28n (%-tan; 2008-2010 - 2014-2016)




(1) Enpresa berritzaileen eta teknologietan berritzaileak diren enpresen ehunekoaren barruan, martxan dauden edo huts egindako berrikuntza teknologikoa dituzten enpresak (enpresa berritzaileak) sartzen dira.

Iturria: Eustat. Berrikuntzari buruzko inkesta; Eurostat. Community Innovation Survey (CIS) 2008, 2010, 2012, 2014.

2016an, Euskadiko I+Garen arloko langileen kopurua pixka bat murriztu arren, kualifikazioa hobetu egin zen eta emakumeek presentzia handiagoa izan zuten.

Euskadiko I+Gko langileen magnitude nagusiak (kopurua ODBaren arabera¹, %-tan; 2005-2016)




(1) Zenbakizko datuak lanaldi osoko dedikazioaren baliokideak (ODB) dira.


Iturria: Eustat. Ikerketa eta Teknologia-Garapenari buruzko estatistika; Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

**Euskal Autonomia
Erkidegoko I+Gko
emaitzek, ekoizpen
zientifikoari eta
patenteei dagokienez,
hazten jarraitu zuten.**

**Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen zientifikoa,
Espainiakoarekin eta mundukoarekin alderatuz
(%-tan; 2005-2016)**



**EPOri patente-eskaerak, BPG mila miliarreko,
Euskadin¹ eta EB-28n (€ PPP; 2005-2016)**




(1) Europako Patenteen Bulegoan (EPB) zuzenean erregistratu ziren euskal enpresen eskaerak ez dira kontabilizatu.

Iturria: Ikerbasque; Espainiako Patente eta Marken Bulegoa (EPMB); Europako Patenteen Bulegoa (EPB); Eurostat. Annual national accounts.

Produktu berrien salmentatik eratorritako enpresa-emaitzak EB-28renak baino hobeak izan ziren.

Europako Batzordeak egindako eskualdeen konparatibaren arabera (15. orria), Euskadi 220 eskualdetatik 14.a da adierazle horretan.


Produktu berrien salmenta, core sektoreko 10 lanpostuko edo gehiagoko enpresen negozio-zifraren arabera, Euskadin eta EB-28n (%-tan; 2008-2016)



Euskadiko teknologia-maila ertain-altuko sektoreetako esportazioek 2009tik izan duten bilakaera positiboa ere (+% 72) nabarmendu zen.

Emaitza ekonomikoak kontuan hartuta eta azken urteetako I+G gastuaren maila ikusita, eraginkortasuna hobetu egin da.

Euskadiko manufaktura-industriako esportazioak, teknologia-mailaren arabera (M€-tan; 2005-2016)




Eta zer iritzi dute adituek?

Ikuspuntu kualitatibotik, Euskal Autonomia Erkidegoko I+G arloko 250etik gora profesionalak osatzen duten BIP taldeak bere egoerari 6,63ko nota jartzen dio; horrek esan nahi du % 3,9 hobetu dela 2016arekin alderatuz.


Enpresen kolektiboak hauteman du bilakaera positibo moderatuena.

BIP adierazlearen balioaren bilakaera (1etik 10erako balioa; 2016-2018)



Hobetu beharreko lehentasunezko alderdiak ETEekin eta ikerketa-ibilbiderako prestakuntzarekin lotutakoak dira.

ZTBESen indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak, aditu-taldearentzat duten garrantziaren arabera (2018)




Iturria: Innobasque. Basque Innovation Perception (BIP) 2018.

Taldeko kideen % 83k baino gehiagok uste dute datozen 5 urteetan I+G+b inbertsioa hazi egingo dela, eta % 32ren ustez, hazkundea urtean % 3 eta % 6 artekoa izango da.

Aditu-taldea 2016an baino baikorragoa da; izan ere, garai hartan, % 68k baino gutxiagok uste zuten inbertsioa handituko zela.

I+G+b-aren arloko inbertsioaren datozen 5 urteetako hazkunde-perspektiba, kolektiboaren arabera (%-tan; 2016 eta 2018)



Innobasqueren ibilbidea

ZTBESen ebaluazioaren arloan

2007ko uztaila

Innobasque sortu zen, Euskadiren eraldaketa bultzatzeko.

2007-2008

Eraldatzen laguntzeko ekimenak identifikatzeko lantaldeak (i-taldeak) jarri ziren martxan.

2008-2010

«Eraldaketa ekonomiko eta sozialerako adierazleen sistema» diseinatzeko i-talde bat sortu zen.

2010-2011

Orkestrarekin batera, «Indicadores de innovación y benchmarking» (Berrikuntza eta benchmarking-eko adierazleak) liburua argitaratu zen.

ELGEk ZTBES ebaluatu zuen. Euskadiko zientzia, teknologia eta berrikuntzako inbertsio, emaitza eta eraginen neurketa indartzea gomendatu zuen.

Liburu horretan, berrikuntzako ukiezinetako inbertsioak eta horien eragina neurtzea gomendatzen zen.

2018

Innobasquek berrikuntzari buruzko bigarren txostena egin zuen.

Innobasquek BIP pertzepzioari buruzko bigarren txostena egin zuen.

2017

Eusko Jaurlaritzaren I+G+b programek Euskadi 2020 ZTBPari egindako ekarpenaren lehen analisisa.

Euskadi 2020 ZTBParin bigarren jarraipen-txostena egin zen.

2016

Innobasquek berrikuntzari buruzko lehen txostena egin zuen.

Innobasquek BIP pertzepzioari buruzko lehen txostena egin zuen.

Euskadi 2020 ZTBParin lehen jarraipen-txostena egin zen.

2014

Euskadi 2020 ZTBParin ZTBES ebaluatzeko prozesu formal bat egitea barne hartu zen eta Innobasqueren esku utzi zen.

2012-2013

Indizea sortu zen, enpresetako I+G+b inbertsioak eta produktibitatean zuten eragina neurtzen zuen eskualde-mailako lehen azterketa. Horretarako, Nesta fundazioaren eredua erabili zuen.



innobasque

berrikuntzaren euskal agentzia agencia vasca de la innovación

www.innobasque.eus

